

ERRI CHIKI BATEKO SAGARDOAREN PREGOIA



Sagardo jabeari
zitzayon burura,
ematea sagardo
bereari ura;
au zan eranda inor
okertu etzezan,
(eta berak geiago
irabazi zezan);
ala, ur piskacho bat
ematen asirik,
eta eman piskak ez
kendurik grazirik,
segiran eman zion
nai zuben guziya,
eta alperrik galdu
zubenean iya,
echera deitu zion
pregoi gilleari,
zeion pregoia egin
erari on ari;
esanaz nai zubela
sagardoa asi,
eta bidea zezan
jendeak ikasi,
alik lenen pregoia
egiten asteko,
zer modutakoa zan
adierazteko.
Gozo ederrekoa
zala, ez gaziya,

indarrez kupelari
uztaya autsiya;
ala, esan zezala
oso ona zala,
oberikan erriyan
saldutzen etzala.
Segiruban atabal
aundiyarekin joan
pregoi gillea eta
joaz, zuben esan:
—choch berriya asi da
atzeko kalian,
Katalin moño bizi
dan aldamenian;
ogei zentimoan da
litroa jarriya,
dan gauzarentzat ez da
baliyo aundiya;
bada jabeak dio
dala gauza ona,
kupelari uztaya
puskatu diona;
bañan neri dirate
beste moduz esan,
eta esanak inor
engaña ezdezan,
nik dakitana orra
ageriyan jarri,
eta neri ez gero
kejikan ekarri.

RAMÓN ARTOLA.

